

IDEIA #ZAPARRADA BERGARAN

Nola edo zertan
hobetu Bergara?

*Garaiotan, inoiz baino
gehiago behar ditugu ekarpen
berritzaileak!*

*Herritarren sormena eta proposamenak
baliabide preziatua dira gure herria
hobetzeko.*

Idea
lehiaketa
2013

*Begararra zara.
Bergaran bizi zara.
Bergara maite duzu.*

*Bota duzu FALTAN gure
herriko eskaintza OSA
dezakeen zerbitzuren
bat; badakizu ZER hobe
daitekeen... eta otu
zaizu NOLA.*

*Zergatik ez proposatu,
bada?! Oraingoan,
gainera, saria irabaz
dezakezu!!!*

**Zeren zain zaude?
Urriaren 21a arte
duzu aurkezteko.**

Antolatzailea:



Begarako
Udala

Laguntzailea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gizarte Politikako
Departamentua

Zer aurkeztu behar da?

IDEIA zerbait laburra da. Sintetikoa. Esaldi bakarrean edo paragrafo txiki batean ere azal daitekeena.

Hori bai! Ulergarria izan behar da eta nola egin daitekeen iradoki beharko diguzu, bideragarria izan daitekeen aztertzeko.

Zein hutsune betetzen duen eta gure herriari zein onura ekar dakizkiokeen ere erakutsi beharko du.

Kontutuan izan:

Proiektua edo ideia BIDEO batean ere azaldu beharko duzu. Baina, LASAI, ez zaitetz larregi konplikatu! Zure proposamena erraz ulertzea baino ez dugu behar.

Nahikoa da ahotsa irudi batekin, PPTekin, txotxongiloekin edo edozein elementurekin laguntzea.

Proiektuaren bideoa euskaraz edo elebitan aurkeztu beharko duzu, ideia euskaraz zein gazteleraz.

eta gogoratu!

- Bai ideiek bai proiektuek epe labur edo ertainean (2014) egingarriak izan behar dute.
- Proiektuek 150.000 euroko aurrekontua izango dute gehienez.

Nola identifikatu ideia edo proiektu bat?

Begararron bizi-kalitatea hobe lezaketenak eta burutsuak diren planteamenduak behar ditugu:

- Zein azpiegitura egin edo hobe daiteke Bergaran?
- Nola hobe dezakegu herritarren bizi kalitatea?
- Nola sustatu parte hartzea herrian?
- Nola lortu Bergaran elkarrekiko solidaritatea areagotzea?
- Nola bultzatu dezakegu bertoko enplegua edo ekonomia?
- Nola hobetu herrian kultura eta herritarren aisia?

... Otutzen zaizun beste edozein!

IDEIAK

1. onena: 300 €
 2. onena: 200 €
- Herriko onena: 200 €
Gazteen onena: 200 €

PROIEKTUAK

1. onena: proiektuaren %30, gehienez 3.000 €
 2. onena: proiektuaren %30, gehienez 2.000 €
- Herriko onena: proiektuaren %30, gehienez 2.000 €

Non eta nola aurkeztu?

Ideiak:

- Online: WhatsApp, Twitter edo Facebook bitartez #zaparrada etiketarekin batera.
- Udaletxean: Gutun azal batean sartuta. Asmatutako izen batekin.

Euskaraz zein gazteleraz aurkez dezakezu.

Proiektuak:

- Udaletxean: Pleguetan zehazten den prozedura jarraituta. Asmatutako izen batekin.

Euskaraz (gaztelerazko laburpen batekin) edo elebitan aurkez dezakezu.

Nola aukeratuko dira irabazleak?

- Jasotako ideia eta proiektuak era anonimoan zerrendatu eta aurkeztuko dira.
- Bergara.net webgunean ikusgai jarriko dira bideoa eta aurkeztutako testuak eta materialak.
- Epaimahai teknikoak pleguetan zehaztutako irizpideen arabera emango duen epaiak %50eko balioa izango du.
- Herritarren bozok %50eko balioa izango dute.

Zalantzarik? Galdetu!!

Udaletxeko harreraren... 943 779110 eta 688 696 228 telefonoetan... Bergara@bergara.net helbidean... WhatsApp-ez edo sare sozialetan.



@BegarakoUdala



/Begarako-Udala



688 696 228

informazio guztia



SARIAK